



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 25a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/DEC-00054. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu edonolako indarkeria matxistaren aurrean. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- 10-22/DEC-00055. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi baitie lehen sektorean lan egiten duten pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- 10-22/DEC-00056. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu HIESSaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00367. Galdera, Nafar folkloreaken mahaiari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/PES-00347. Galdera, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2023ko lan egutegia (6. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren 2023ko ordutegi ofiziala (7. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/DEC-00054. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu edonolako indarkeria matxistaren aurrean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 24an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berriro ere bere arbuioa adierazten du emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazioren ondoriozko edonolako indarkeria matxistaren aurrean, edozein alor eta testuingurutan.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, lanean aktiboki jarraitzeko emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria eta ahuldade egoeren iturri diren desberdinkeria guztien aurka.

3. Nafarroako Parlamentuak emakume eta neskato erasotu eta/edo erailenganako elkartasuna adierazten du, indarkeria sexista muturrekoenaren biktima diren aldetik, eta bere laguntza osoa eskaintzen die haiei eta haien familiei.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du beharrezkoa dela adin guztietako gizonezko guztiek konpromisoak eta posizio aktiboak har di-

tzaten emakumeenganako edonolako indarkeriaren aurka.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiak gonbidatzen ditu jarrai dezaten emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzen, eta konpromisoa erakusten indarkeria horren deuseztatzearekin, kontrol patriarkalaren adierazpen oro eta emakumeen askatasunerako eta autonomiarako muga eta baldintzapen oro salatzen, eta parte har dezaten azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren ekitaldi guztietan.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin eta, hori dela eta, parte hartuko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez deituriko herritarren elkarretaratze isilarekin, zeina egiten baita azaroaren 25ean, ostirala, 12:00etan, Nafarroako Jauregiaren atarian (Karlos III.a etorb.), emakumeekiko indarkeria arbuiatzeko”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00055. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi baitie lehen sektorean lan egiten duten pertsona guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 24an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi die lehen sektorean lan egiten duten pertsona guztiei, beren lanaren eta jardun onaren bidez gure erkidegoa kalitatezko ekoizpenaren erreferente bihurtu dutelako.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenak gure lurraldeko ekonomiarentzat eta Nafarroako gizartearentzat duen garrantzia.

3. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du nekazaritza eta abeltzaintzako elkarteek sektorea hobetzeko helburuz erakundeekin batera egiten duten lana.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela gure erkidegoko lehen sektorea hobetzen laguntzen duten politika publikoen alde lan egiten jarraitzea.

5. Nafarroako Parlamentuak erakundearen saririk gorena den Nafarroako Parlamentuaren domina emanen die gure erkidegoan nekazaritza eta abeltzaintza lan egiten duten pertsonen eta, horiez gain, kooperatibei, Nafarroako jatorri izendapenei, adierazpen geografiko babestuei eta nekazarien eta abeltzainen antolakundeei, funtsezko sektorea osatzen baitute gure erkidegoaren lurralde-egituraketarako eta ekonomiarako”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00056. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu HIESsaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko azaroaren 24an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du HIESsaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondoan ostegunean, abenduaren 1ean, 12:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, 41 urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da prebentzio konbinatuan lan egiten jarraitzea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasuna-

ren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzearen alde egiten du.

4. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da arreta soziosanitario banakatua bermatzea GIB-dun diren pertsonen, kontuan hartuz haien berezitasunak, bereziki emakumeen eta adinduen kasuan.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonen diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorritz argiztatzea”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00367. Galdera, Nafar folkloreaken mahaiari buruzkoa.*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak Nafar folkloreaken mahaiari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritako

aren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko ekainean, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehazteko Ponentzia parlamentarioak eskatuta, Kultura eta Kiroleko Batzordeak eskaera egin zien erakunde publiko guztiei Nafar folkloreaken mahaia sor zezaten, herri-kulturaren alde iraunkortasun-asmoz diharduten elkarte, federazio eta taldeak bilduko zituena. Nafarroako Gobernuak mahai horren sorrera iragarri zuen.

Zertan da Nafar folkloreaken mahaia eta zer ondorioetara iritsi da gure erkidegoko herri-kulturaren egoera hobetze aldera?

Iruñean, 2022ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

10-22/PES-00347. Galdera, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan ureztalur bihurtzeko eta lurzati berrantolamendurako prozesuaren izapideen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako ubidearen 1. fasearen zabalpeneko eremu osagarriak ez daude Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren 2015eko urriaren 29ko Ebazpenak aintzat hartutako azalaren barruan. Ebazpen horren bidez aldatzen dira ltoizko urtegiak (Longidako udal-mugartean) Irati ibaitik deribatzen diren azalaren ezaugarriak. Ur horiek ureztaketarako erabiltzen dira Nafarroako

Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Nagusiaren titularitasuneko Nafarroako Ubideko eremu ureztagarrietan. Lurzati berrantolamendurako eta eremu horiek ureztalur bihurtzeko prozesuarekin jarraitu ahal izateko beharrezkoa da jarduketei hasiera emateko foru dekretua onestea –horren barruan legoke interes orokorraren eta onura publikoaren deklarazioa–, eta horrek eskatzen du Estatuko Administrazio Orokorraren esku-hartzea behar duten zenbait izapide egitea:

1.- Estatuko Administrazio Orokorrak interes orokorreko deklarazioa egitea.

2.- Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkartek Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan izapidetzea egungo emakidaren ezaugarrien aldaketa.

3.- Ebro ibaiaren arroaren plangintza hidrologikoaren hurrengo aldia jasotzea.

4.- Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea egiteko duten lankidetzaren hitzarmena eguneratzea. Hala, erabaki behar da Nafarroako ubidearen 1. faseko zabalpeneko eremu osagarriak sartzeko –2019ko martxoaren 27ko udalez gairako proiektu sektoriala dagoen–, bai eta Ubideko Ureztatzaileen Elkarteak 1. faseko udalez gairako proiektu sektorialean proposaturiko azalera berriak ere, Nafarroako ubideko zati izan daitezkeen ondorio guztietarako, eta 1. faseko, 1. fasearen zabalpeneko eta 2. faseko azalera birbanatzea.

Zertan dira izapide horiek?

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2023ko lan egutegia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz adierazitako adostasunaz, honako hau ERABAKI DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2023ko asteko jaiegunen eta lanekoak ez direnen egutegia. Honako hau da:

- Uztailaren 6a, 7a, 10a, 11, 12a, 13a eta 14a: lanekoak ez diren egunak, Sanferminak direla-eta.
- Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak (2022ko ekainaren 27ko 126. NAO). Hona:

- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Apirilaren 6a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 7a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 10a: Pazko astelehena.
- Maiatzaren 1a: Langileen Eguna.
- Uztailaren 25a: Santiago Eguna.
- Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokunde.
- Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.
- Azaroaren 1a: Santu guztien eguna.
- Abenduaren 4a: San Frantzisko Xabierkoaren ondoko astelehena.
- Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.
- Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.
- Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

2. Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen berbera izanen da; hots, eguneko 7 ordu eta 30 minutukoa, astelehenetik ostiralera. Salbu eta

urtarrilaren 9an eta 24an, egun hauetan lanaldia 7 ordu eta 35 minutukoa izanen baita, lortze aldera langileen lanaldiaren 2023ko urteko zenbatekoa 1.560 ordukua izan dadila.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa. Betiere, egunean 6 ordu eta 30 minutuko lanaldia egin beharko da.

3. Laneko txandak gaur egun indarreko berberak izanen dira, langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitziburuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedenaldirik barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09:15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

2) Goizeko txanda jarraitua.

Gainerako astegunetan egiten dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoarekin, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraitua edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitziburuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitziburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraia egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituena. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2023ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2023ko lan-egutegiaren proposamena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA.

1. Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2023. urterako:

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 6an, 7an, 10ean, 11n, 12an, 13an eta 14an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 2tik ekainaren 30era, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

– Astelehenetik ostegunera: 09:00etatik 17:30era.

– Ostiraletan: 09:00etatik 14:30era.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

